1974 | 2024

# M1 LANGILE BORROKA zabaltzen

## Eskubideak • Burujabetza • Eraldaketa

LAB en 50.urtemugako ospakizun betean dator Maiatzaren Lehena, eta berezia izango da aurten. Mende erdiko ibilbiderekin, LAB langile guztien etxea da, borrokarako tresna, erreferentziazko sindikatua euskal langileriarentzat.

Sindikatuak defendatutako ideietako asko nagusi bilakatu dira euskal sindikalismoan: izaera soziopolitikoa, kontraboterea, independentismoa, sindikalismo feminista, sindikalismo antirrazista. Guztiak beharrezkoak, bizi dugun krisi sistemikoari aurre egiteko. Geroz eta bortitzago ageri da kapitalismo heteropatriarkal eta koloniala. Desberdintasun sozialak areagotzen, planeta suntsitzen eta munduan gerrak eragiten ari da. Palestinar herria gogoan dugu Maiatzaren Lehen honetan, palestinarekiko eta munduko herri zapalduekiko elkartasun internazionalista aldarrikatzeko eguna ere izango da aurtengoa.

Kapitalismoa langileon bizitzak erasotzen ari da. Europan eskuin muturra indartzen ari da eta Euskal Herria ere ez da salbu jarrera indibidualista, autoritario eta arrazisten eraginetik. Hori horrela izanik ere, baikortasunerako heldulekuak baditugu, ezker subiranismoa indartzen ari baita alternatiba gisa. Euskal Herriko gehiengo zabalak bat egiten du eraldaketa sozialaren aldeko aldarriekin. Politika publiko hobeak nahi ditu, osasun sistema publiko sendoa, zaintza sistema publiko komunitarioa, soldata eta pentsio duinak. Eta gehiengoa gara herri honen erabakitzeko eskubidea defendatzen dugunak.

Nazioarte mailako krisi ekologiko eta ekonomikoari aurre egiteko, Euskal Herrian estatu tresnak behar ditugu. Langileen lan eta bizi baldintzen aldeko borrokan aurrera egin behar dugu, aldaketa sozialak eta aldaketa politikoak sustatu. Euskalduntze prozesuari, trantsizio energetikoari edota osasun eta zaintza sistemari dagokionez politika burujabeak behar ditugu. Euskal langileen lan eta bizi baldintzak bertan erabaki nahi ditugu, lan kode eta gizarte segurantza propioa garatuz.

Euskal Herriaren prozesu eratzailea eta eraldaketa soziala txanpon beraren bi aldeak dira. Etengabe mobilizatzen ari den herria da gurea: eremu publikoko langileen greba eta mobilizazioak; zaintza eraldatzeko Greba Feminista Orokorra; edota bizitzaren garestitzeari eta prekarizazioari aurre egiteko borroka sindikalak...

Burujabetzaren eta eraldaketa sozialaren norabidean bultza egiteko unea da. Bizitza erdigunean izango duen Euskal Errepublika independentea sortzea da erronka. Eta hori egingo dugu herri langilearen alde, kapitalari eremu guztiak lehiatuz, lantokiak, kaleak eta baita instituzioak ere.

LAB ez zen jaio euste-horma izateko, harresiak apurtzeko baizik. Maiatzaren Lehen honetan gure jatorrizko konpromisoan berresten gara: langileon antolakuntzaz eta borrokaz, Euskal Herriaren nazio askapenerako eta eraldaketa sozialerako bidea zabaltzen jarraituko dugu.

Borroka eta jai giroa uztartuz, aurtengoan deialdi nazionala dugu: nazio manifestazioa egingo dugu Iruñean, 11:30ean Gazteluko plazatik abiatu eta Anaitasunaraino. Ondoren, bertan, ekitaldia eta egun beteko jaialdia izango dugu. Bertan ikusiko dugu elkar. Ez hutsik egin!



LAB

**LAB** SINDIKATUAREN 50. URTEURRENA
IRUÑEA
2024KO MAIATZAREN LEHENA

1974 | 2024

# M1 LANGILE BORROKA zabaltzen

## *Derechos • Soberanía • Transformación*

El Primero de Mayo llega en plena celebración del 50 aniversario de LAB, lo que hace que este año sea aún más especial. Con medio siglo de trayectoria, LAB es la casa de todas las trabajadoras y trabajadores, una herramienta de lucha, un sindicato de referencia para la clase trabajadora vasca.

Muchas de las ideas defendidas por LAB se han vuelto mayoritarias en el sindicalismo vasco: carácter sociopolítico, contrapoder, independentismo, sindicalismo feminista, sindicalismo antirracista. Todas ellas necesarias para hacer frente a la crisis sistémica que vivimos. El capitalismo heteropatriarcal y colonial se muestra cada vez más violento, aumenta las desigualdades sociales, destruye el planeta y provoca guerras en el mundo. Este Primero de Mayo tendremos muy presente al pueblo palestino. Será un día para reivindicar la solidaridad internacionalista con Palestina y los pueblos oprimidos del mundo.

El capitalismo sigue atacando la vida de las y los trabajadores. En Europa se está fortaleciendo la extrema derecha y Euskal Herria tampoco está a salvo de actitudes individualistas, autoritarias y racistas. Aun así, tenemos motivos para el optimismo, porque el soberanismo de izquierdas se está fortaleciendo como alternativa. La mayoría social de Euskal Herria se suma a las reivindicaciones por la transformación social. Reclama mejores políticas públicas, un sistema sanitario público sólido, un sistema de cuidados público comunitario, salarios y pensiones dignas. Y somos mayoría quienes que defendemos el derecho a decidir de este pueblo.

En Euskal Herria necesitamos herramientas de estado para afrontar la crisis ecológica y económica internacional. Debemos avanzar en la lucha por las condiciones laborales y de vida de las y los trabajadores, promover cambios sociales y políticos. Necesitamos políticas soberanistas para impulsar el proceso de euskaldunización, la transición energética, la sanidad y el sistema de cuidados. Queremos decidir aquí las condiciones laborales y de vida de las y los trabajadores, con una seguridad social y un código laboral propios.

El proceso constituyente y la transformación social de Euskal Herria son las dos caras de una misma moneda. El nuestro es un pueblo en constante movilización: huelgas y movilizaciones de trabajadores y trabajadoras del sector público; Huelga Feminista General para transformar los cuidados; o luchas sindicales para hacer frente al encarecimiento y precarización de la vida.

Es el momento de avanzar hacia la soberanía y la transformación social. Tenemos como objetibo la construcción de una República Vasca independiente que ponga la vida en el centro; para ello disputaremos el poder al capital en todos los ámbitos, en los centros de trabajo, en la calle y en las instituciones, siempre en defensa del pueblo trabajador.

LAB no nació para hacer de muro de contención, sino para romperlos. En este Primero de Mayo nos reafirmamos en nuestro compromiso fundacional: desde la organización y lucha de clase, seguiremos abriendo el camino hacia la liberación nacional y la transformación social de Euskal Herria.

Este Primero de Mayo será una jornada de lucha y celebración en torno a una convocatoria nacional: una manifestación nacional en Iruñea partirá a las 11:30 desde la plaza del Castillo hasta el Anaitasuna. Allí tendrá lugar el acto central y la posterior jornada de celebración. ¡No faltéis!



**LAB** SINDIKATUAREN 50. URTEURRENA
IRUÑEA
2024KO MAIATZAREN LEHENA